

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Gueñesko Udala****2018 ekitaldirako egutegi fiskala**

Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritzaren Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko martxoaren 12an eginiko bilkuran, 2018rako egutegi fiskala onetsi zuen, aldizkako epemugadun zergak kobratzeko. Hona hemen erabaki hori, hitzez hitz:

Lehenengoa: 2018 ekitaldirako kobrantza-egutegia onestea, Gueñesko Udal honek kudeatutako jakinarazpen kolektiboko eta aldizkako epemugadun zergetarako.

1. Oro har, Udalak honako egutegi hau ezarri du aldizkako sarrera publikoak kobratzeko.

- a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: 2018ko iralaren 10etik, urriaren 10era (Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du).
- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 2018ko irailaren 10etik, urriaren 10era (Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du).
- c) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga: apirilaren 1etik ekainaren 30era.
- d) Ibiak, taxien aparkalekuen erreserba, merkataritza-iragarkiak, toloak, etab.: abenduaren 15etik 30era.
- e) Mahaiak, terraza estaliak eta aulkiak instalatzeagatiko tasa: abenduaren 15etik 30era.
- f) Estolderia-zerbitzua emateagatiko tasa: hiruhilekoa, Bilbao Bizkaia Ur Partzuegoaren fakturan.
- g) Udal Azokako postuak: martxoaren, ekainaren, irailaren eta abenduaren 15ean.
- h) Udal-lursailen ustiapena: urriaren 1etik azaroaren 15era.
- i) Kirolguneko abonamenduak: familiako edo banakako urteko abonamenduen zenbateko osoa batera ordainduko da, urtarrilean. Hiruhileko abonamenduak urtarrilean, apirilean, uztailen eta urrian kobratuko dira.
- j) Udal-ikastaroak: urtarrilean, apirilean eta urrian.

2. Helbideratutako ordainagiriak dagokion kontura kargatuko dira borondatez ordaintzeko epearen azken egunean.

Erosotasun handiagorako, ordainketa honako bitarteko hauek erabiliz helbideratzea gomendatzen dugu: banku-erakundeetan, udal-bulegoetan, fax bidez (946 690 269), Internet bidez dagokion inprimakia bidaliz (www.gueñes.eus, tramiteak, zergak, banku-helbideratzeak) edo posta elektronikoko bidez (ogasuna@gueñes.eus).

Bigarrena: Onestea honako egunak eta ordainketa-modalitateak 2017ko Neurrirako Ordainketarako:

- Hiruhilekoa: 02-28/05-31/08-31/11-30.
- Seihilekoa: 04-30/10-31.
- Urtekoa: 07-30.

Hirugarrena: Egutegia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean, www.gueñes.eus.

Gueñesen, 2018ko martxoaren 15ean.—Alkatea, Imanol Zuluaga Zamalloa